

ezagutzen al duzu Donostia?

Errando

Errando eta ez Errando deitu izan diete beti gure aiton-amonak eta oraindik ere bizi dira honela deitzen dutenak hain ezagunak ziren Errando Aundi, Errando Txiki eta beren ondorengo den Errando Berri baserriak. Azken hau da gaur zutik gelditzen den bakarra da. Errandoko gaina oso inguru xarmantzaren garai batean; bertan jauregi bat, Juanistegi, eta 5 baserri kokatzen ziren: lehen aipatutako hiru Errandoak, Joatxindegi «Kotxindei» eta Orzariago «Ortsoyo» Errando Txikiin igandero eskuko-soinuz alaitutako «billera» egiten zenez inguruko hainbat gazteen biltokia zen. Urtero San Bernardo egunez egiten zuten festa, hain zuzen ere santu hau bai-



«Errando Berri baserria. Auzoan zutik irauten duen bakarra».

tzen aipatu jauregiko zaindaria. Garai haietan Felipe Azkona jauna -Donostiako alkate izana 1922-1923 urteen artean- zen Juanistegiko nagusia. San Bernardoren irudia auzoko sarrerako kurban jartzen zuten nitxo batean (gaur ere San Bernardoren erre-buelta deitzen zaio leku horri). Meza entzun ondo-

an festa giro polita izaten zen, gainera. Felipe Azkona nagusiak dena ordainduta. Garai haiek bukatu ziren. Errando Txikiko taberna itxi zen eta bertara «San Juan de Dios» deituriko fraileak sartu ziren. Ondoren, hauek, Juanistegi bota eta bertan komentuegoitza berria eraiki zuten. Auzoko baserri guztiak

galdu ziren aipatu dugun Errando Berri ezik eta auzo etxe txiki asko eraiki ziren haien hurretan. Gaur, Morlasen antzeko ingurune bat bihurtua, Amara Berriko hegoaldean hau agertzen da beti Amara Goiakoa izan den Errando gainako auzo-txiki polita.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

BAQUE KAFEAK ESKEINITAKO

ARGIBIDE KAFEZALEAK



Kalitatezko kafeak GORPUTZA eduki behar du, ahoan gozatzeko; eta MIKAZTASUN neurri egokia, bixitasun puntu bat izan dezan, eta FRAGANTZIA jakin bat bere ZAPORE eta USAIN GOZOAK osaturik.

BAQUE KAFEA suabe... suabea



Poz handia ematen digu kafeaz dakigun guztia zure esku jartzeak.